BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE ANTOLAMENDU SAILA

5003

EBAZPENA, 2009ko urtarrilaren 23koa, Ingurumeneko sailburuordearena, Montorretas SA enpresari ingurumen-baimen bateratua emateko dena, Durangoko udalerrian, berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko jarduera burutu ahal dezan.

AURREKARIAK

2006ko abenduaren 29an, Edorta Ozkor Uribasterra jaunak, Montorretas SA enpresaren izenean eta enpresa bera ordezkatuz, Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Sailari ingurumeneko baimen bateratua eskatu zion, kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak xedatutakoaren arabera, Durangoko (Bizkaia) udalerrian berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko jarduerarako. Eskaerarekin batera ondorengo agiri teknikoak erantsi ziren:

● Ingurumeneko baimen bateratua eskatzeko proiektu teknikoa eta beste agiri gehigarri batzuk (2006ko abendua).

● Laburpen ez-teknikoa (2006ko abendua).

Eskaerak, halaber, proiektuaren eta Durangoko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko udal txostena, 2006ko abuztuaren 4koa, jaso zuen.

Erreferentziako baimenaren eskaeraren unean, Montorretas SA enpresak honako baimenak zituen: Jarduera Baimena, 1967ko abenduaren 6koa, Jarduera Gogaikarri, Osasungaitz, Kaltegarri eta Arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuarekin bat etorriz, «perdigoirako berunaren galdaketa» jarduerarako, eta biltegi-nabea instalatzeko baimena, 1987ko urriaren 8koa.

2007ko urtarrilaren 30ean, Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak prozeduran parte hartzen duten hainbat organori txostenak eskatu zizkion, Ingurumen Organoak proiektua jendaurrean jartzeko agindu zezan. Zehazki, Durangoko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari egin zitzaien kontsulta.

2007ko apirilaren 3an, Ingurumen Organoak agiri gehigarriak txertatzeko eskatu zion sustatzaileari, eta agiri horiek 2007ko urriaren 5ean aurkeztu ziren.

Aurkeztutako agiriak nahikoa zirela egiaztatu ondoren, Ingurumen sailburuordeak 2007ko azaroaren 14an emandako Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen 30 egun balioduneko epean, Montorretas SA enpresak sustatutako proiektua, egoki iritzitako alegazioak aurkezteko. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian nahiz Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, bietan 2007ko abenduaren 3an. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko bi egunkaritan argitaratu zen 2007ko abenduaren 2an, eta proiektuak hartuko duen eremuaren ondoko auzokide bakoitzari jakinarazpena bidali zitzaion.

Jendaurrean jartzeko izapidea amaitu ondoren, hainbat alegazio aurkeztu direla egiaztatu da Montorretas SA enpresak Durangoko udalerriko instalazioetan egiten duen jardueraren inguruan. Alegazio horiek ebazpen honen eranskinean jaso dira organo honen baldintzekin batera.

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoa betez, 2008ko urtarrilaren 14an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak txostenak eskatu zizkien Durangoko Udalari eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari, espedientean ageri den emaitza jasoz. Halaber, Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren txostena eskatu da.

Ingurumeneko baimen bateratuaren espedientearen ebazpenerako agiriak osatze aldera, 2008ko otsailaren 18an Ingurumenaren Kalitatearen Zuzendaritzak berriz ere agiri osagarriak txertatzeko eskatu zuen, eta espedientea 2008ko ekainaren 10an osatu zen.

2008ko urriaren 28an, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan xedatutakoa betez, espediente osoa Montorretas SA enpresaren esku utzi zen, eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako ebazpen-proposamena gehitu zen. Ez zen horri buruzko komunikaziorik jaso.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. artikuluan xedatutakoaren arabera, lege horren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legea garatu eta burutzeko Erregelamendua onartzen duen apirilaren 20ko 509/2007 Errege Dekretuaren 3. artikuluan xedatutakoa betez, baimen honetan sartzen dira ekoizpen-elementu eta lerro guztiak; 16/2002 Legearen 1. eranskinean aipatzen ez diren arren, lege hori aplikatu beharreko esparruko jardueren instalazioetan gauzatzen direnak eta jarduera horrekin zerikusia dutenak.

16/2002 Legearen 9. artikuluak ezartzen duena betez, ingurumeneko baimen bateratua behar dute 1. eranskinean aipatzen diren jardueraren bat garatzen duten instalazioak eraiki, muntatu, ustiatu, lekuz aldatu nahiz funtsezko beste aldaketaren bat egiteko. 11. artikuluaren arabera, baimen honen oinarrizko helburua baldintzak ezartzea da, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren. Era berean, indarrean dagoen araudiaren araberako ingurumeneko administrazio-baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bildu nahi dira. Montorretas SA enpresaren kasuan, baimen hauek guztiak behar ditu: hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuak sortzeko baimena, saneamendu sare nagusira isurtzeko baimena, eta ingurumen-izaerako beste zehaztapenen artean, atmosferaren kutsadurari dagozkion baimenak eta lurzoruaren kutsadura prebenitu eta zuzentzeari dagozkionak. Gainera, espedientean beste administrazio eta erakunde eskudun batzuek ere parte hartu dute, aginduzko txostenak igorriz.

16/2002 Legearen 29. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozedurak jarduera sailkatuetarako udal-lizentziaren prozedura ordezkatzen du, jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko azaroaren 30eko 2414/1961 Dekretuan aurreikusten zena; ez du ordezkatzen, ordea, udal-agintaritzak emango duen behin betiko ebazpena. Ondorio horietarako, ingurumeneko baimen bateratua udal-agintarientzat loteslea izango da, baldin eta lizentzia ukatzeko bada edota neurri zuzentzaileak ezartzeko bada; baita aipatu arauaren 22. artikuluan jasotako ingurumen-alderdiei buruzko aipamena egiten bada ere. 29. artikulu horretan aipatzen denez, goiko guztiak ez ditu kaltetuko autonomia-erkidego bakoitzean jarduera sailkatuei aplikatzekoak diren gainerako arauak. Transkribatutako aginduak

aplikatuz, Montorretas SA enpresari dagokion ingurumeneko baimen bateratuaren prozedurak barne hartu ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean aurreikusitako izapideak, eta Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren txostenak eskatu dira, espedientean agertzen den bezala.

Azkenik, instalazioak gehienez isur ditzakeen gai kutsagarrien balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika onenen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak. Zehazki, Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko galdaketen inguruko BREF txostenaren «Referente Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry», 2001eko abenduko burdinarik gabeko metalari buruzko BREF txostenaren «Reference Document on Best Available Techniques on de Non Ferrous Metal Industries» eta 2005eko urtarrileko biltegiratze-igorpenen inguruko BREF txostenaren «Reference Document on Best Available Techiniques on Emissions from Storage» edukiak kontuan hartu dira.

Espedienteko txostenak aztertu eta proiektuaren osotasunaren ingurumen-ebaluazioa egin ondoren, ebazpen-proposamena sinatu eta Montorretas SA enpresak sustatutako proiektuak bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Goian adierazitako izapideak amaitu dira, eta Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 20. artikuluan jasotzen den entzunaldi-izapidea bete da.

Organo hau da ingurumeneko baimen bateratu hau emateko eskuduna, aipatutako legearen 13. artikuluan eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 25eko 340/2005 Dekretuaren 9. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Ondorengo araudia ikusi da: Ingurumen eta Lurralde Plangintza Sailak 2008ko urriaren 28an emandako Ebazpen-proposamena; otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra, Euskal Herriko Ingurumena Babesteari buruzkoa; 16/2002 Legea, uztailaren 1ekoa, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoa; urriaren 25eko 340/2005 Dekretua, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailaren egitura organikoa ezartzen duena; 30/1992 Legea, azaroaren 26koa, Herri Administrazioen Araubide Juridikoa eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa, eta aplikatzeko den gainerako araudia, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Durangoko (Bizkaia) udalerriko Montorretas auzoko 20. zenbakian egoitza soziala duen eta IFK: A-48172704 zenbakia duen Montorretas SA enpresari ingurumen– baimen bateratua ematea, helbide horretako instalazioetan berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko, ebazpen honen Bigarren atalean ezarritako baldintzekin.

Jarduera Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 1. eranskineko «2.5. metal ez-ferrosoak, aleazioa barne, eta berreskuratzeko produktuak (fintzea, moldea galdaketan) galdatzeko instalazioak, berun eta kadmiorako 4 tona edo gainerako metal guztietarako 20 tona baino gehiagoko urtze-gaitasunarekin, egun bakoitzeko» kategorian dago.

Montorretas SA enpresa Montorretas Auzoan kokatzen da, Durangoko herri-gunetik hego-ekialdera, erabat urbanizatutako inguruan, merkataritza, industria eta zerbitzuen azpiegiturarako erabilerarekin, eta 4.950 m^2-ko azalera hartuz.

Perdigoien ekoizpena bi sistema desberdinen bidez egiten da: euri bidez edo estanpazio bidez.

Lehengaia txatarra, berunezko bloke edo lingote gisa jasotzen da. Kanpo-patioan, estalpean paletizatuta biltegiratzen dira, gainerako lehengaiekin batera.

«Euri» bidezko perdigoiak ekoizteko, lehengaien % 30-40-ak, beharrezko aleazioa du jada, gainerako % 60-70 inguru prozesatu beharra dago. Horretarako, txatarra edo berunezko blokea 40 tonako ahalmena duen eta 400 ºC-tara gasaren bidez berotzen den labean sartzen da, eta oxigenoa eta artsenikoa gehitzen zaio (noizean behin, oxigenoaren ordez, NaOH eta sufrea txertatzen da). Hala, berunak izan dezakeen eztainua ere ezabatzen da. Berunaren aleazioa solidotu egiten da lingoteak osatuz.

Berunaren aleazioa karga-jasogailuan igoko da dorrearen goi-zatira. Han, lingotea galdatzeko gasezko labea dago eta ondoren, tanta itxurarekin modu askean erortzen da bahe batzuk zeharkatuz, hala nahi den esferikotasun eta tamainako perdigoiak lortuz. Beheko zatian ur-biltegi batean jasotzen dira, hoztu eta handik lehortegi batera pasatzen dira. Ondoren, grafitoarekin estaltzen dira eta 1.000 kg-ko edukiontzietan biltegiratzen dira bidalketa egiteko.

Euri bidezko metodoarekin perdigoiak fabrikatzeko galdatzeko dorrearen ahalmena 1,9 Tn/ordukoa da.

Estanpazio bidez perdigoiak ekoizteko 4 lerro edo Collin makina dituzte; horietako 3 0,5 Tn/o eta bat 0,25 Tn/o-ko ahalmenarekin. Lerro bakoitzak gasezko labe bat du metala galdatzeko. Ontzi batera ponpatzen da eta gainezkaldi bidez elektrikoki berotu den kanal batera pasatzen da. Kanal horren azpiko aldean, zulatutako plaka trukagarriak ditu eta perdigoien tamaina zehazten dute. Galdaketa-moldea altzairu herdoilgaitzezko ontzi baten gainean dago. Ontziak ura du eta hara erortzen dira perdigoiak. Ondoren, igogailu baten bidez, zilindro lehortzaile birakari batera bidaltzen dira.

Jarraian, akastunak bereizi egiten dira beirazko eskaileran barna korrika eginaraziz, hodian grafitatzen dira eta danborretan fintzen dira. Azkenik, 1,9 eta 3,3 mm-ko kalibreko bahe bidez sailkatzen dira, pisatu egiten dira eta zakuetan sartu.

Urteko ekoizpen-ahalmena, kontuan hartuz instalazioen ahalmen izendatua eta urteko 5.544 orduko guztizko lan-jarduna, 10.534 Tm/urteko perdigoi fabrikatu euri-sistemaren bidez (1,9 Tm/o) eta 9.702 Tm/urteko perdigoi fabrikatu estanpazio bidez (1,75 Tm/orduko 4 Collins makinen artean).

Energia hauek erabiltzen dira plantan: gas naturala aleazioa prestatzeko urtzeko arragoadun labean, eta galdatzeko dorreko labeetan eta 4 Collin makinetan; energia elektrikoa makinen funtzionamendu orokorrean, berotzean eta instalazioko argiterian; gasolioa barne-garraiorako orgatiletan, eta aire konprimitua ekipo pneumatikoetan.

Hauek dira atmosferara isurketak egiten dituzten instalazioak: arragoadun labea, galdatzeko dorreko labea euri bidezko ekoizpenerako, estanpaziorako Collin makinen labeetako erregailuak, eta amaitutako perdigoiei grafito-estalduraren aplikazioa.

Horien artean, iragazpen-sistema honako hauek dute: arragoadun labeko (iragazpena bide hezea, Scrubber mota) eta grafitatze-instalazioko (kartutxo-iragazkiak) xurgapenak.

Instalazioko ur-kontsumoa bi putzutatik hartzen da eta perdigoiak hozteko eta komun eta aldageletan erabiltzen da (ez giza kontsumorako ur gisa).

Sortzen diren hondakin-ur bakarrak langileen erabilera higieniko-sanitarioek eta estalkien eta azaleko euri-urek sortutakoak dira. Tratamendurik gabe isurtzen dira kolektorera. Industria-prozesuan ez dira isurketak sortzen.

Konpresoreko purgatzeak olio eta ur bereizgailu batek tratatzen ditu. Ura, perdigoiak euri bidez fabrikatzeko prozesuko hozte-piszinara joaten da.

Proiektuak, besteak beste, enpresak Teknika Erabilgarri Onenak (TEOak) bezala hartzen dituen ondoko neurriak jaso ditu: Galdaketa sektoreko «Reference Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry» BREF agiria, 2005eko maiatzekoa, burdinarik gabeko metalari buruzko «Reference Document on Best Available Techniques on de Non Ferrous Metal Industries» BREF agiria, 2001eko abendukoa eta Biltegiratzeari buruzko «Reference Document on Best Available Techniques on Emissions from Storage» BREF agiria, 2005eko urtarrilekoa.

● Hormigoizko zola eta estalkia biltegietan; ekortzeko makina zoruko hautsa ezabatzeko. Perimetro-itxitura haizearen kontra egotea murrizteko, garraio-distantzien murrizketarako erabileratik gertu biltegiratzea.

● Artsenikoaren bidoiak trinkotzea HAen kudeatzaileari eman aurretik beren bolumena murrizteko.

● 200 L-ko xaboiaren bidoien ordez, 800 L-ko itzultzeko edukiontziak erabiltzea.

● Arragoadun labetik kendutako berunezko oreen bidoi hermetikoetan biltegiratzea.

● Berunezko fusioan oxigenoa ematea eta potasio nitratoa ezabatzea (eta sodio hidroxidoa eta sufrea gutxitzea).

● Erreusekoak eta konforme ez dauden produktuak fusioan berrerabiltzea.

● Berriz erabil daitezkeen edukiontzietan poteratzea.

● Hezean iragaztea urtzeko labean eta mahuka-iragazkia grafitoa aplikatzean.

● Galdatzeko dorrearen erorketaren diametroa gehitzea, labearen gas-kontsumo berarako ekoizpen-ahalmena handituz.

Bigarrena.– Honako baldintza eta eskakizun hauek ezartzea, Montorretas SA enpresak, Durangoko udalerrian sustatzen duen berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko jarduera ustiatzeko:

A) Administrazioarekiko harremanez arduratuko den pertsonaren gainean Ingurumen Sailburuordetzari emandako datuetan aldaketarik badago, Montorretas SA enpresak aldaketa horien berri emango du.

B) Neurri babesle eta zuzentzaileak, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu dituen agirietan aurreikusita bezala burutuko dira, indarrean dagoen araudiaren arabera eta ondorengo ataletan ezarritakoari jarraituz:

B.1.– Airearen kalitatea babesteko baldintzak.

B.1.1.– Baldintza orokorrak.

Montorretas SA enpresaren fabrika ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituzte ebazpen honetan ezarritako muga-balioak gaindituko.

Prozesuan zehar atmosferara isurtzen den gai kutsatzaile oro bildu eta ihesbide egokienean zehar kanpora bideratuko da, behar denean, gai kutsatzaileen ezaugarrien arabera diseinatutako gasak arazteko sistema batetik igaro ondoren.

Arau orokor hori bete beharrik ez dute izango gai kutsatzaileak mugarik gabe isuri eta horiek biltzea teknikoki edo ekonomikoki bideragarria ez denean, edota ingurunean kalte urria eragiten dutela egiaztatzen denean.

Neurriak hartuko dira ustekabean gai kutsatzailerik ez botatzeko, eta botatzen direnak giza osasunerako nahiz gizartearen segurtasunerako arriskutsuak izan ez daitezen. Gas-efluenteak tratatzeko instalazioak behar bezala ustiatu eta mantenduko dira, efluenteen tenperatura– eta konposizio-aldakuntzei modu eraginkorrean aurre egiteko. Era berean, ahalik eta gehien murriztuko dira instalazio horiek gaizki dabiltzan edo geldirik dauden aldiak.

B.1.2.– Fokuak identifikatzea. Katalogazioa.

Montorretas SA enpresaren instalazioak ondoko fokuak ditu, indarrean dagoen araudiaren arabera katalogatuta:

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Garaiera (m)	Diam. (m)	Katalogazioa.	UTM koordenatuak	
					Taldea	X	Y
1	48002936-01	Beruna urtzeko arragoadun labea	11,2	0,63	B	531.001	4.778.999
2	48002936-02	Beruna urtzeko labeko erregailua	10,7	0,20	C	531.006	4.779.005
3	48002936-03	Galdatzeko dorre	35,0	0,20	B	530.944	4.779.019
4	48002936-04	1. Collin Makina erregailua	8,0	0,30	C	530.957	4.778.998
5	48002936-05	2. Collin Makina erregailua	5,5	0,15	C	530.962	4.779.007
6	48002936-06	3. Collin Makina erregailua	5,5	0,15	C	530.961	4.778.960
7	48002936-07	4. Collin Makina erregailua	6,0	0,15	C	530.943	4.778.998
8	48002936-08	Grafito-aplikazioa	6,0	0,30	C	530.947	4.778.990

Isurtze barreiatuak etenkako erregimenean honako hauetan sortzen dira:

- Hautsezko gaien biltegiratzea eta erabilpena (grafitoa).
- Barne-ibilgailuen joan-etorriak.
- Materialen urtze eta gehitzea, Artsenikoa adibidez, arragoadun labean..
- Lau Collin makinak.
- Galdatzeko dorrea.

Zentzu horretan, lau Collin makinen eta galdatzeko dorrean sortzen diren isurtze barreiatuak biltzeko, husteko eta, hala badagokio, arazteko proposamen zehatza (kronograma, zehaztapenak, etab.) bidaliko da. Halaber, arragoadun labeko prozesuen bilketa hobetzeko proposamena aurkeztuko da (zabaltzea eta isurtze barreiatuak gutxitzeko egokitzapena).

B.1.3.– Isurtzeko muga-balioak.

a) Atmosferara isurtzen diren gai poluitzaileek ondorengo balioak ez gainditzeko moduan ustiatuko da instalazioa:

Fokuak	Substantziak	Isurtzeko muga-balioak
1.- Beruna urtzeko arragoadun labea	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm3
	Beruna eta berunezko gatzak	10 mg/Nm3
	Artsenikoa	0,05 mg/Nm3
	Antimonioa	1 mg/Nm3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO2)	130 mg/Nm3
2.- Beruna urtzeko labeko erregailua	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
3.- Galdatzeko dorrea	Artsenikoa	0,05 mg/Nm3
	Antimonioa	1 mg/Nm3
	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm3
	Beruna eta berunezko gatzak	10 mg/Nm3
	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
	Sufre dioxidoa (SO2)	130 mg/Nm3
4.- 1. Collin makina	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
5.- 2. Collin makina	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
6.- 3. Collin makina	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
7.- 4. Collin makina	Nitrogeno oxidoak (NOx)	300 ppm
	Karbono monoxidoa (CO)	500 ppm
8.- Grafito-aplikazioa	Guztizko partikulak (GP)	20 mg/Nm3

Isurtze barreiatuen tratamenduari dagozkien etorkizuneko foku berriari/ei dagokionez/ dagokienez, Ingurumen Sailburuordetzak, Ebazpen honen B.1.2 paragrafoan xedatutakoa betetzeko sustatzaileak aurkeztu beharreko proposamenaren onarpenaren ostean bete beharreko muga-balioak ezarriko ditu.

Balio horiek baldintza hauek dituzte: 273 K-ko tenperatura, 101,3 kPa-ko presioa eta gas lehorra.

b) Neurtutako parametroek ez dituzte isurtzeko muga-balioak gainditu, arauz egingo diren aldizkako ikuskaritzetan (ordubeteko hiru neurketa, gutxienez) zortzi ordutan zehar neurtuta. Neurketa-tolerantzia gisa, kasu guztien % 25ean gainditu ahal izango da muga-balioa, % 40 gainditzen ez duen zenbatekoa baldin bada. Tolerantzia hori gainditu gero, neurketa-aldia astebetez luzatuko da, eta aldi honetako tolerantzia global gisa, kasuen % 6an gehienez onar daitezkeen mailak gainditzea onartuko da, % 25a gainditzen ez duen zenbatekoa denean. Tolerantzia horiek

izanda ere, gai kutsatzaileak isurtzen dituen fokuaren eraginpeko zonaldean ezin izango dira inoiz higienikoki onar daitezkeen balioak gainditu.

B.1.4.– Gasak biltzeko eta husteko sistema.

Fokuetako hondakin-gasak kanporatzeko tximiniak ez dira egongo B.1.2 paragrafoan ezarritako goreneko kotatik behera. Tximiniek, Industria Ministerioaren 1976ko urriaren 18ko Agindua, industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzekoa n ezarritako baldintzak beteko dituzte; horrela, besteak beste, laginak hartzeko puntura sarbide seguruak eta errazak jarriko dituzte.

Zehazki, laginak hartzeko aurreikusitako zuloen kokapenari eta ezaugarriei dagokienez, gas-fluxuak laginketa-puntutik neurketa-puntura bitartean, bere norabidean zehar nahiz aurkakoan, edozein asaldu izan dezakeen gunera bitarteko distantziek (L1 eta L2 parametroak) 1976ko urriaren 18ko Aginduaren III. eranskinean xedatutakoa beteko dute.

L1 ≥ 8D eta L2 ≥ 2D distantziak betetzen ez diren fokuetan, inoiz ez dira L1 < 2D eta L2 < 0,5D balioak onartuko. Kasu horietan, neurketen txostenean laginketa-planoaren baliotasuna justifikatzea eskatuko da.

Isurtze barreiatuak murrizteko, isurtzeak biltzeko, husteko eta arazteko sistema guztien mantentze-lan zuzenak egingo dira, eta gainera, beste jarduera hauek: instalazioak egunero eta astero garbitzea, ateak ixtea, haizagailuak, etab., kanpo-sistemena, pabiloia orokorrean ixtea, etab., isurtze horiek minimizatzea bermatzeko. Gainera, labearen xurgapen-kanpaian gasak biltzea modu egokian egiten dela bermatuko da aurrez ezarri den bezala. Hautsezko hondakinak eta materialak metatzeko eremu mugatuak izango dira, hautsa altxa ez dadin, bai eta barreia ez dadin hautsezko materialak edo pikordunak garraiatzeko sistemak ere. Halaber, zolatzea eta asfaltatzea egoera onean mantenduko da ibilgailu astunen edota barne-ibilgailuen joan-etorrietarako eremu guztietan. Aipatutako informazio guztia agiri honen D.3 ataleko prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan jaso eta erregistratuko da.

B.2.– Saneamendu-sarera isurtzeko baldintzak.

B.2.1.– Isurketen jatorria eta kokapena.

Isurketa sortzen duen jarduera mota nagusia: Burdinarik gabeko beste hainbat metalen galdaketa (beruna).

Jarduera-taldea: Metala.

Mota-taldea-EJSN: 1-2-2754.

Isurtze-puntuak	Hondakin-ur mota	Isurketaren jatorria	Ingurune hartzailea
1	Ur sanitarioak	Komunetako eta aldageletako ur sanitarioak	Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoaren kolektorea
2	Euri-urak	Patioetako eta estalkietako euri-urak	

Kolektorera identifikatutako isurketa-puntu bakoitzaren (sanitarioak eta euri-urak) UTM koordenatu zehatzak adieraziko dira.

Ondorengo isurketa-motak sortzen ditu jarduerak: hondakin-ur sanitarioak eta estalki, bide eta patioetatik datozen euri-urak. Isurketa guztiak estolderiaren udal-sarera isurtzen dira.

B.2.2.– Gehienez isur daitezkeen emari eta bolumenak.

a) 1. Isurketa. Erabilera sanitarioko urak:

Eguneko gehienezko bolumena	1,05 m3/egun
Urteko gehienezko bolumena	242,55 m3/urte

b) 2. Isurketa. Kutsadura eragin dezaketen euri-urak.

Urteko gehienezko bolumena	4.415,04 m3/urte
Orduko punta-emaria	-

B.2.3.– Isurtzeko muga-balioak.

Saneamendu-sarera eginiko azken isurketak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoko kolektorera isurtzeko Araudian adierazitako mugak eta baldintzak bete beharko ditu.

Enpresak isurketa-puntuan 2. isurketaren karakterizazio osoa emango du. Horretarako, kontuan hartuko dira gutxienez jardueraren parametro orokorrak, eta Europako Batzordeko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak EPER gauzatzeko 2000ko uztailaren 17an argitaratutako Bideratze Agirian, eta aplikatzekoak diren BREF agirietan zehaztutako arloko azpizerrenden araberako ohiko parametroak.

Horrela, enpresa eskatzaileak hidraulika-administrazioaren erakunde laguntzaile batek egindako analisi bat aurkeztuko du, gutxienez isurtze-puntu bakoitzaren lagin bateko kutsatzaile horiek kontuan izanda; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Ezingo dira diluzio-teknikak erabili isurtzeko muga-balioak lortzeko.

B.2.4.– Araztu eta husteko instalazioak.

Zerbitzuko aire-konpresoreek galdaratxoak purgatu ondoren sortutako olioak ezabatzeko ekipamendu berezia izan behar dute nahitaez.

Aplikatu beharreko isurketa-mugak betetzen ez direla ikusiz gero, Montorretas SA enpresak arazketa-instalazio zehatzak ezarri beharko ditu isurketa baimendutako ezaugarrietara egokitze aldera. Aldez aurretik Administrazioari jakinarazi beharko dio, eta hala badagokio, baimena aldatzea eskatuko du.

Kontrol-kutxetak egongo dira, kolektorera azken isurketaren aurretik, ur sanitarioen eta euri-uren fluxuen laginak hartu eta banakako karakterizazioa egin ahal izateko. Kutxeta horiek beharrezko ezaugarriak izan beharko dituzte isurketen lagin esanguratsuak eskuratu ahal izateko. Kutxetak ikuskatu ahal izateko sarbide zuzena ahalbidetzen duten lekuan kokatuko dira, hala badagokio.

B.3.– Instalazioan sortutako hondakinak egoki kudeatzen direla bermatzeko baldintzak.

Instalazioetan sortzen diren hondakin guztiak hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legean eta aplikatzekoa den berariazko gainerako araudian xedatutakoari jarraituz kudeatuko

dira; hala badagokio, hondakinak karakterizatu egin beharko dira euren izaera zehaztu eta helburu egokiena erabakitzeko.

Espresuki debekatuta dago sortzen diren tipologia desberdineko hondakinak elkarrekin edo beste hondakin nahiz efluente batzuekin nahastea; hondakinak jatorritik bertatik bereiziko dira eta horiek bildu eta biltegiratzeko bide egokiak jarriko dira, nahasketak saihesteko.

Hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei jarraituz, hondakin oro baliotu egin behar da eta horretarako balioztagune baimendu batera eraman behar dira. Hondakinak ezabatu ahal izango dira, baldin eta horiek baliotzea teknika, ekonomia edota ingurumen aldetik bideragarria ez dela behar bezala egiaztatzen bada. Birsortzea eta berrerabiltzea lehenetsiko dira baliotzeko beste modu material edo energetikoren aurretik.

Era berean, hondakinak tratatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan instalazio baimenduak badaude, instalazio horietara bidaliko dira, autosufizientzia- eta gertutasun-printzipioei jarraituz.

Baimendutako zabortegian ezabatzea aurreikusita dagoen hondakinen karakterizazioa, 2002ko abenduaren 19ko Kontseiluaren 2003/33/EE Erabakiarekin bat etorriz gauzatuko da. Erabaki horren bidez, hondakinak zabortegian hartzeko irizpideak eta prozedurak ezartzen dira. Bestela, erabaki hori garatzeko Euskal Autonomia Erkidegoan onartutako jarraibideekin bat etorriz gauzatuko da.

Hondakinak biltzeko eremuek lurzoru estankoak izan beharko dituzte. Egoera fisiko likidoan edo oretsuan dauden edo oso bustita daudelako isurketak edo lixibiatuak sor ditzaketen hondakinen kasuan, horiek biltzeko kubeta edo sistema egokiak jarriko dira, ezbeharrez gerta daitezkeen isurketak kanpora irten ez daitezen. Hondakina hautsa bada, euri-urarekin kontakturik izan dezan edo haizeak arrasta dezan saihestuko da; behar izanez gero, estali egingo da.

Hondakinek desagertu, galdu edo ihes egingo balute, berehala jakinaraziko da gertatutakoa Ingurumen Sailburuordetzan eta Durangoko Udalean.

B.3.1.– Hondakin arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin arriskutsuak honako hauek dira:

● 1. prozesua: Galdaketa.

○ 1. hondakina: Berunezko galdaketaren hondakinak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/1/1.

– Hondakinaren kodea: Q8//R4//S25//C18//H14//A223//B3232.

– EHZ: 100405.

– Urtean sortutako kantitatea: 88.000 kg/urte.

Beruna galdatzeko arragoadun labean sortutako hautsezko hondakinak. Urtzeko labearen (scrubber) xurgapenaren iragazpen-sistemaren hautsarekin batera kudeatzen da. 800 kg-ko bidoi metaliko hermetikoetan jaso eta teilapean eta lurzoru estankoaren gainean biltegiratzen da.

● 2. prozesua: Zerbitzu Orokorrak.

○ 1. hondakina: Kutsatutako metalezko ontziak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/1.

– Hondakinaren kodea: Q5//R4//S36//C8/41//H5//A223//B0019.

– EHZ: 150110.

– Urtean sortutako kantitatea: 2.000 kg/urte.

Urtzeko labean erabilitako artsenikoa eduki duten ontzi hutsak; trinkotu eta teilapeko hormigoizko zuloan biltegiratzen dira.

○ 2. hondakina: Hondakin-olio erabilia.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/2.

– Hondakinaren kodea: Q7//R9/13//L8//C51//H5/6//A223//B0019.

– EHZ: 130205.

– Urtean sortutako kantitatea: 350 kg/urte.

Orgatila transpaletak eta beste elementu mekaniko batzuen mantentze-lanetan eta konpresoreen purgatzeei eta olioekin nahastutako beste ur batzuei olioak bereiztean sortzen diren hondakin oliotsuak.

○ 3. hondakina: Xurgatzaile eta material kutsatuak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/3.

– Hondakinaren kodea: Q5//R13//S35//C41/51//H5//A223//B0019.

– EHZ: 150202.

– Urtean sortutako kantitatea: 100 kg/urte.

Mantentze-lanetan sortutako eta olioz bustitako trapu, kotoi eta beste xurgatzaile batzuk. 80 l-ko plastikozko bidoian biltegiratua eta teilatupeko HAen biltegian.

○ 4. hondakina: Pilak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/4.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S37//C7//H14//A223//B0019.

– HEZ kodea: 200133.

– Urtean sortutako kantitatea: 0,25 kg/urte.

Hainbat ekipamenduren mantentze-lanetako pila erabiliak. Kartoizko kaxan jasotzen dira bulegoetan eta Garbigune bidez kudeatzen da.

○ 5. hondakina: Hodi fluoreszenteak eta merkurio-lanparak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/5.

– 121.

– Urtean s Hondakinaren kodea: Q6//R13//S40//C16//H6/14//A223//B0019.

– EHZ: 200ortutako kantitatea: 1 kg/urte.

Mantentze-lan elektrikoetan erabilitako fluoreszenteak. Kartoizko kaxan jasotzen dira bulegoetan eta Garbigune bidez kudeatzen da.

○ 6. hondakina: Ekipo informatikoak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/6.

– Hondakinaren kodea: Q6//R13//S35//C6/7/16//H14//A223//B0019.

– HEZ kodea: 160213.

– Urtean sortutako kantitatea: 8 kg/urte.

Mantentze-lan informatikoetan jasotako ekipo zaharkituak.

○ 7. hondakina: Bateriak.

– Identifikazioa: A48172704/4800005251/2/7.

– Hondakinaren kodea: Q6//R4//S37//C18/23//H6/8//A223//B0019.

– HEZ kodea: 160601.

– Urtean sortutako kantitatea: 10 kg/urte.

Transpaleten mantentze-lanen bateria erabiliak. Noizean behin sortzen dira.

a) Hondakin arriskutsuak biltzeko sistemak bereiziak izango dira, duten tipologia dela-eta, isuriren bat gertatuz gero, nahasi, arriskutsuago bihurtu edo kudeaketa zaildu dezaketen kasuetan.

b) Hondakin arriskutsuak dituzten ontziek hondakin toxiko eta arriskutsuei buruzko maiatzaren 14ko 20/1986 Oinarrizko Legea betearazteko erregelamendua onartzen duen uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 13. artikuluan ezarritako segurtasun-arauak kontuan izan beharko dituzte, eta itxita egongo dira kudeatzaileak jaso arte, isuri edo lurrundu ez daitezen.

c) Aurreko atalean aipatzen diren ontziek etiketatuta egon beharko dute, eta etiketak argia, irakurtzeko modukoa eta ezabaezina izan beharko du; etiketa uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuak 14. artikuluan horretarako adierazitako jarraibideen araberakoa izango da.

d) Hondakin arriskutsuak gordetzeko denbora ezingo da 6 hilabetetik gorakoa izan.

e) Hondakinak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eraman aurretik, nahitaezko baldintza izango da agiri baten bidez egiaztatzea kudeatzaile baimendu horrek hondakinak onartu dituela. Agiri horretan hondakinak onartzeko baldintzak ezarriko dira, eta egiaztatu egingo da tratatu beharreko hondakinaren ezaugarriak administrazio-baimenarekin bat datozela. Agiri hori Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko da hondakina lehenengoz erretiratu aurretik eta, behar izanez gero, hondakinen kudeatzaile berri batengana eraman aurretik. Beharrezkoa izanez gero, karakterizazio xehatua egingo da, proposatutako tratamenduaren egokitasuna egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela.

f) Hondakin arriskutsuak eraman aurretik eta, hala badagokio, araudian ezarritako aurretiazko jakinarazpena egin ondoren, kontrolerako eta jarraipenerako agiria bete beharko da. Agiri horren zati bat garraiolariari emango zaio, zamarekin batera jatorritik helmugaraino eraman dezan. Montorretas SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

g) Egiaztatu egin beharko da hondakin arriskutsuak kudeatzaile baimenduaren instalazioetara eramateko erabiliko den garraiobideak horrelako gaiak garraiatzeko indarrean dagoen legerian ezarritako baldintzak betetzen dituela.

h) Montorretas SA enpresak ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuari, Industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenari, jarraituz kudeatu beharko du sortutako industria-olio erabilia.

i) Ekainaren 2ko 679/2006 Errege Dekretuan, industrian erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, aurreikusitako baimendutako kudeaketa bateraturako sistema bat ezartzen ez den bitartean, irailaren 29ko 259/1998 Dekretuan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabilitako olioaren kudeaketa arautzen duenean, begiesten diren aurreikuspenak bete beharko ditu Montorretas SA enpresak.

j) Ekipo elektriko eta elektronikoen hondakinak, horien artean hodi fluoreszenteak, otsailaren 25eko 208/2005 Errege Dekretuan, tresna elektriko zein elektronikoei eta horien hondakinen kudeaketari buruzkoan ezarritakoaren arabera kudeatuko dira.

k) Montorretas SA enpresak PKB daukaten gailuak dituenez, nahitaez bete behar ditu horiek behar bezala kudeatzeko abuztuaren 27ko 1378/1999 Errege Dekretua, poliklorobifeniloak, polikloroterfeniloak eta horiek dituzten gailuak ezabatu eta kudeatzeko neurriak ezartzen dituena, eta errege-dekretu hori aldatzen duen otsailaren 24ko 228/2006 Errege Dekretua.

l) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000ko ekainaren 29ko 2037/2000 EE Erregelamenduan ozono-geruza agortzen duten substantzia batzuk zehazten eta arautzen dira. Montorretas SA enpresak era horretako substantzia erabilirik badu, substantzia horiek bildu eta suntsitu egingo dira aldeek erabakitako bide teknikoak erabiliz edota ingurumen-ikuspuntutik onar daitekeen suntsiketarako beste edozein bide erabiliz; hondakin horiek birziklatu edo birsortu egingo dira bestela, aparatuak aztertu eta mantentzeko lanen aurretik nahiz desmuntatu edo suntsitu baino lehen.

m) Montorretas SA enpresak urtero adierazi beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari ekitaldi bakoitzean sortu dituen hondakin arriskutsu guztien jatorria, kopurua, helmuga eta aldi baterako biltegiratuta dauden hondakinen zerrenda.

n) Erregistro bat edukiko du, hondakin arriskutsuei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, sorrera- eta lagapen-datak, jasotzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua, uztailaren 20ko 833/1988 Errege Dekretuaren 17. artikuluan ezarritakoa betez, eta uztailaren 20ko 952/1997 Errege Dekretuaren bidezko aldaketan ezarritakoa betez. Sei hilean behin, Ingurumen Sailburuordetzari kontrolerako erregistro horren kopia bidaliko dio.

o) Hondakin arriskutsuen kudeaketako funtsezko oinarriak bete daitezen, hau da, hondakin horiek ahal den gutxiena sortzeko, Montorretas SA enpresak neurri babesleak erabiliz hondakin arriskutsuen sorrera gutxitzeko plana egin eta aurkeztu beharko du Ingurumen Sailburuordetza honetan, gutxienez lau urtean behin.

p) Aurreko e), f) (kudeatzaileak EAEn daudenean), m) eta n) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

q) Amiantoa duten hondakinak antzemanez gero, Montorretas SA enpresak amiantoak ingurumenean sortzen duen kutsadura saihestu eta gutxitzeari buruzko 1991ko otsailaren 1eko 108/1991 Errege Dekretuan ezarritako eskakizunak bete beharko ditu. Era berean, amiantoa duten

hondakinak kudeatzeko egingo diren manipulazioak martxoaren 31ko 396/2006 Errege Dekretuan ezarritako aginduen arabera burutuko dira; dekretu horren bidez ezarri ziren amiantoarekin lan egiterakoan segurtasun eta osasun arloan bete behar diren gutxieneko baldintzak.

B.3.2.– Hondakin ez-arriskutsuak.

Sustatzaileak adierazitako hondakin ez-arriskutsuak hauek dira:

Hondakinaren izena	EHZ kodea	Zein prozesuri lotuta	Zenbatetsitako ekoizpena
Papera eta kartoia	200101	Zerbitzu Orokorrak	50 kg/urte
Zurezko paletak	150103	Zerbitzu Orokorrak	3.600 kg/urte
Plastikozko ontziak	150102	Zerbitzu Orokorrak	30 kg/urte
Tonerra	080318	Zerbitzu Orokorrak	0,75 kg/urte
Hirikoekin pareka daitezkeen hondakinen nahasketa	200301	Zerbitzu Orokorrak	1.100 kg/urte

a) B.3 atalean bereiztearen eta hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoen inguruan xedatutakoari jarraituz, nahasketak izeneko hondakinak ezingo du baliotu daitekeen hondakin-frakziorik izan. Horri dagokionez, egungo egoeran Euskal Autonomia Erkideagoan baliotu daitezkeen hondakin-frakzioak hauek dira: papera eta kartoia, zura, plastikoak, urratzaileak, metal ferrikoak eta metal ez-ferrikoak.

b) Erabilitako ontziak eta ontzi-hondakinak gaika behar bezala bereizi eta eragile ekonomiko bati emango zaizkio (hornitzaileari), erabilitako ontzien kasuan berriro erabili ahal izateko; ontzi-hondakinak, berriz, berreskuratzaile, birziklatzaile edo balioztagune baimendu batera.

c) Hondakin horiek ezabatzeko direnean ezin dira urtebete baino gehiagoz biltegiratuta eduki. Hondakinen azken helburua baliotzea denean, 2 urtez gorde ahal izango dira.

d) Oro har, hondakinak hustu aurretik, baimendutako kudeatzaile batek onartzen dituela dioen agiria izan beharko dute, onarpen horretarako baldintzak zehaztuta. Agiri horren kopia bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara, proposatutako kudeaketa egokia dela eta ebazpen honetan ezarritako oinarrizko printzipioak betetzen direla egiaztatzeko. Hala badagokio, arrazoitu egin beharko da proposatutako kudeaketa-modua Ebazpen honetako hondakinen kudeaketari buruzko printzipio hierarkikoei egokitzen zaiela. Montorretas SA enpresak artxibategian gorde beharko ditu onarpen-agiriak eta kontrolerako zein jarraipenerako agiriak, edo horien agiri ofizial baliokideak, bost urtean gutxienez.

e) Halaber, hondakin geldo eta geldotuen kudeaketari buruzko azaroaren 2ko 423/1994 Dekretuarekin bat etorriz, hondakin ez-arriskutsuak zabortegi baimendu batera eraman aurretik, jarraipenerako eta kontrolerako dagokion agiria bete beharko da. Agiri horiek bost urtez gorde beharko dira.

f) Erregistro bat egingo da, hondakinei buruzko datu hauek agerrarazteko: kopurua, izaera, identifikazio-kodea, jatorria, tratatzeko metodo eta tokiak, bai eta hondakin guztien sorrera– eta lagapen-datak, biltzeko maiztasuna eta garraiatzeko modua ere. Urtero, Ingurumen Sailburuordetzari bidaliko zaio kontrolerako erregistro horren kopia.

g) Aurreko d), e) (kudeatzaileak EAEn daudenean) eta f) ataletan adierazitako agiriak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira, ahal dela transakzio elektroniko bidez, IKS-L03 Sistemaren erakundeentzako bertsioa erabilita.

B.4.– Lurzorua babesteko baldintzak.

Urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretuan eta otsailaren 4ko 1/2005 Legean ezarritako aginduak betez lurzoruaren egoerari buruz aurkeztutako aurretiazko txostenean jasota dauden gomendioen arabera, Montorretas SA enpresak lurzorua babesteko beharrezko neurriak hartu beharko ditu, erabilitako materialen eta identifikatutako arrisku-eremuen arabera.

Olioak metatzeko eremuak eta baheen koipetze-eremuak tanta-jario edo jarioentzako atxikipen-kubeta edo –erretiluak izango dituzte.

Zamaketa-lanetan gasolioaren biltegia modu egokian erabiltzen dela bermatuko da babestutako eremutik kanpoko jarioak ekiditeko.

Labearen xurgapenen hezean eginiko iragazkiak hartutako eremuak eta bere inguruak hormigoizko zoru estankoa izango du, jarioa edo dekantagailutik erauzitako lohien sakabanaketa ekiditeko.

Lehengai gisa erabili ohi diren sufrea, sodio hidroxidoa eta, bereziki beren bolumenagatik, beruna eta artsenikoa bezalako produktu solido arriskutsuen biltegiratzea, Produktu Kimikoak Biltegiratzeko Araudian ezarritako segurtasun-neurrien araberakoa izango da. Kanpo-garraioan eta produktu horiek erabiltzen diren eremuetan ere zorua eragin ez dezaten ekiditeko euste-neurriak ezarriko dira.

Gasolio-biltegiak petrolio-instalazioei aplikatzeko araudian jasotako babes-neurriak beteko ditu, eta ezarritako azterketak eta ikuskapenak egingo zaizkio.

Hautsezko gaiak arrastatzea murriztuko da, behean adierazitako moduko sistema orokorrak erabilita:

● Hautsezko gaiak siloetan, pabiloi barruan, edo horrelakorik ezean, haizetik hobekien babestutako tokietan gorde.

● Haize gogorra dabilenean hautsezko solidoak manipulatzea saihestu.

● Materialak deskargatzeko altuera mugatu.

B.5.– Zaratari buruzko baldintzak.

Jarraian adierazitako zarata-mailak ez gainditzeko neurriak instalatuko dira:

a) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 40 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 08:00ak eta 22:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 45 dB (A) ere gehienezko balioetan.

b) Jarduera maila hauei egokitu behar zaie: etxebizitzen barrualdean entzungo den zarata ezin izango da inoiz ere 30 dB (A) baino handiagoa izan Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, 22:00ak eta 08:00ak bitartean, leiho eta ateak itxita, ezta 35 dB (A) ere gehienezko balioetan.

c) Era berean, zarata ezin da 60 dB (A) baino handiagoa izan, Leq 60 segundo etengabeko balioan neurtuta, industria-eremuaren kanpoko itxituran.

d) Zamalanetan eta materiala kamioietan garraiatzean egiten den zaratak ez du handituko sentsibilitate akustiko handieneko guneetako zarata-maila.

C) Ingurumena zaintzeko programa.

Ingurumena zaintzeko programa sustatzaileak aurkeztutako agirietan aurreikusitakoaren eta ondoko atal hauetan ezarritakoaren arabera gauzatu beharko da:

C.1.– Atmosferara botatzen diren poluitzaileak kontrolatzea.

a) Montorretas SA enpresak isuriak kontrolatu beharko ditu, ondorengo informazioaren arabera:

Fokuaren zk.	Foku-kodea	Isurtze-fokuaren izena	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna
1	48002936-01	Beruna urtzeko arragoadun labea	Guztizko partikulak Pb, Sb, As CO SO2 NOx	Urtero
			PCDD/PCDF	Lehen urtean
2	48002936-02	Beruna urtzeko labeko erregailua	CO, NOx	5 urte
3	48002936-03	Galdatzeko dorrea	Guztizko partikulak Pb, Sb, As CO SO2 NOx	Urtero
4	48002936-04	1. Collin Makina erregailua	CO, NOx	5 urte
5	48002936-05	2. Collin Makina erregailua	CO, NOx	5 urte
6	48002936-06	3. Collin Makina erregailua	CO, NOx	5 urte
7	48002936-07	4. Collin Makina erregailua	CO, NOx	5 urte
8	48002936-08	Grafito-aplikazioa	Guztizko partikulak	5 urte

b) Aurreko atalean aipatutako neurketa guztiak baimendutako kontrol-erakunde (BKE) batek egin beharko ditu (zortzi ordutan hartutako hiru neurri, gutxienez ordubetekoa bakoitza; dioxinak eta furanoak ere neurtzen direnean, 6 edo 8 orduz neurtuko dira), eta aldizkako kontrol horiei buruzko txostenak Ingurumen Sailburuordetza honek prestatutako «Baimendutako kontrol-erakundeen gutxieneko txostenean» ezarritakora egokitu beharko ditu. Edonola ere, isurien kontrolek eta baldintzek Sailburuordetzaren jarraibide teknikoetan ezarritako eskakizun guztiak bete beharko dituzte.

c) Arestian eskatutako parametro guztien neurketen BKE txostenak bidaliko dira. Neurketa berriak egin beharko dira, baldin eta parametroen neurketarik ez badago edo egindako neurketak ebazpen honetan kontrol-maiztasuna ezarri aurretik egindakoak badira. Atmosferara egiten diren isurtzeen ondorengo kontrolak, egindako azken neurketan adierazitako maiztasunarekin egingo dira.

d) Erregistro bat egin beharko da euskarri informatikoan edo, horrelakorik ezean, paperean. Dokumentazio gaurkotua erabilita gauzatuko da erregistroa, eta industriak atmosferan sortzen duen kutsadura saihestu eta zuzentzeari buruzko 1976ko urriaren 18ko Aginduak 33. artikuluan ezarritako edukia jaso beharko du. Erregistro horretan adieraziko dira egindako neurketen emaitzak, mantentze-lanak, garbiketa, aldizkako ikuskatzeak, matxuraren ondorioz gertatutako etenaldiak, egiaztapenak, edozein motako gorabeherak, eta abar. Dokumentazio horrek eguneratuta egon beharko du, eta ingurumen-ikuskatzaileek eskatuko balute, eskuragarri izango dute.

C.2.– Isuritako uraren kalitatea kontrolatzea.

a) Sustatzaileak aurkeztu dituen agirien arabera, ondorengo analisiak egingo dira:

Isurketa-puntua	Kontrolatu beharreko fluxua	Neurtu beharreko parametroak	Kontrolen maiztasuna	Kontrol-mota
1 eta 2	Ur sanitarioak eta euri-urak	BBUPak zehaztuko du	Aldizka	Kanpokoa (BBUP)

Isurketen kontrolerako kutxeten UTM koordenatuak aurkeztu beharko ditu sustatzaileak.

b) Kanpoan egiten den kontrol bakoitza, laginak hartzea nola ondorengo analisia, «Erakunde Laguntzaile» batek egin eta egiaztatuko du (Jabari Publikoko Urguneen Erregelamenduaren 255. artikulua) edo, hala badagokio, saneamendu-sarearen kudeaketaz arduratzen den erakundeak, eta organo eskudunak zehaztutako parametro bakoitzerako kontrol bana egin beharko da. Sustatzaileak isurketa-puntu bakoitzeko lagin hartu berri baten analisia aurkeztu beharko du gutxienez; lagina 24 orduko ur-emariarekiko proportzionala izango da, edo bestela, lagin puntual esanguratsua.

Isurketen kontrolen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira laginak hartzen direnetik hilabete bateko (1) epean.

c) Laginketak kutsatzaile gehien sortzen den aldietan egingo dira.

d) Isurketak baimenean jarritako baldintza guztiak betetzen dituela ulertuko da, organo eskudunak zehazten dituen parametro guztiek ezarritako mugak betetzen badituzte.

e) Isurketan lehen aipatutako maiatzaren 23ko 606/2003 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarriak aipatzen dituen gai arriskutsuak dauden dioen adierazpen bat igorriko du titularrak urtero. Adierazpen horretan produkzio-prozesuan manipulatu diren substantzia guztiak adierazi behar dira, nahiz eta isurketan ez detektatu.

C.3.– Jardueraren adierazleak kontrolatzea.

Sustatzaileak jardueraren gaineko ondorengo parametro adierazleen jarraipena egingo du urtero, ingurumenean duten eragina aztertzeko:

Ingurumenaren gaia	Enpresari eskatutako abiaburuko datuak	Unitateak	Interpretazioa egiteko adierazleak	Unitateak
Ekoizpena	Metal likidoa	t	Metal likidoa	t
Lehengai eta osagarrien kontsumoa	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● berunezko txatarra ● berunezko blokeak ● berunezko lingoteak ● Oxigenoa ● Artsenikoa ● NaOH ● Sufrea	t	Lehengaien guztizko kontsumoa: ● berunezko txatarra ● berunezko blokeak ● berunezko lingoteak ● Oxigenoa ● Artsenikoa ● NaOH ● Sufrea	t
Energia kontsumoa	Gas naturalaren kontsumoa	Kwh	Gas naturalaren kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	Elektrizitatearen kontsumoa	Kwh	Berariazko energia (kontsumitutako energia energiaren guztizko kontsumoaren aurrean)	Kwh/Kwh (%)
	Gasolio-kontsumoa	Kwh	Gasolio-kontsumoa energiaren guztizko kontsumoaren aurrean	Kwh/Kwh (%)
	Prozesuko energia guztiaren kontsumoa	kWh	Prozesuko energia guztiaren kontsumoa / T ekoiztu	kWh/T ekoiztu
Isurtze atmosferikoak	Partikulen guztizko emisioa (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin-zk.)/ 1, 3 eta 8. fokurako	mg/Nm3	Guztizko partikula-isuria	mg/Nm3
	Guztizko partikulen guztizko isurketa	kg	Guztizko partikulen guztizko isurketa	kg
			Guztizko partikulen guztizko isurketa/T ekoiztu	kg/t
	PCDD/PCDF guztizko isurketa	kg	PCDD/PCDF guztizko isurketa	kg
			PCDD/PCDF guztizko isurketa / T ekoiztuak	kg/t
	NOx-aren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1etik 7rako fokuetarako	mg/Nm3	NOx-aren isurtzea	mg/Nm3
	NOx-aren guztizko isurtzea	kg	NOx-aren guztizko isurtzea	kg
			NOx-aren guztizko isurtzea / T ekoiztuak	kg/t
	CO-aren isurtzea (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1etik 7rako fokuetarako	mg/Nm3	CO isuriak	mg/Nm3
	COren guztizko isurtzea	kg	COren guztizko isurtzea	kg
			CO-aren guztizko isurtzea/T ekoiztu	kg/t
	SO2-aren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1etik 3rako fokuetarako	mg/Nm3	SO2 isurketak	mg/Nm3
	SO2ren guztizko isurtzea	kg	SO2ren guztizko isurtzea	kg
			SO2-aren guztizko isurtzea/T ekoiztu	kg/t
	Pb eta PB-ren gatzen isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1 eta 3 fokuetarako	mg/Nm3	Pb eta PB-ren gatzen isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1. fokurako	mg/Nm3
	Pb eta PB-ren gatzen guztizko isurtzea	kg	Pb eta PB-ren gatzen guztizko isurtzea	Kg
			Pb eta PB-ren gatzen guztizko isurtzea / T ekoiztu	kg/t
	Sb-ren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1 eta 3 fokuetarako	mg/Nm3	Sb-ren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1. fokurako	mg/Nm3
	Sb-ren guztizko isurtzea	kg	Sb-ren guztizko isurtzea	kg
			Sb-ren guztizko isurtzea/T ekoiztu	kg/t
	As-ren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1 eta 3 fokuetarako	mg/Nm3	As-aren isurtzeak (gehienezkoa, gutxienekoa, batez bestekoa, lagin kopurua)/ 1. fokurako	mg/Nm3

	As-ren guztizko isurtzea	kg	As-ren guztizko isurtzea	kg
			As-ren guztizko isurtzea/T ekoiztu	kg/t
Ur kontsumoa	Ur-kontsumoa	m3	Ur-kontsumoa	m3
			Ur-kontsumoa/T ekoiztu	m3/t metal likidoa
Uretara egindako isurketak	Industriako isurketak/Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	m3	Industriako isurketak/Bilbao-Bizkaia Ur Partzuergoa	m3
Hondakinak	Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kantitatea	T	Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kantitatea	T
	1.		Sortutako Hondakin Arriskutsuen guztizko kantitatea / t ekoiztu	t ekoiztu
	Hondakin arriskutsu baliotuak	t	Hondakin arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin arriskutsuak	t/t (%)
	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	t	Sortutako hondakin ez-arriskutsuen guztizko kantitatea	T
	1.		Sortutako Hondakin ez Arriskutsuen guztizko kantitatea / t ekoiztu	t ekoiztu
	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak	t	Hondakin ez-arriskutsu baliotuak / Sortutako hondakin ez-arriskutsuak (gainerako osagaiak, …)	t/t (%)
			Sortutako hondakin ez arriskutsuen guztizko kopurua / guztizko hondakinak	t/t (%)
Lurzoruaren kutsadura	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua (ingurune hartzailea zehaztu: airea, ura, lurzorua)	Kopurua/urte	Ustekabeko isuriekin lotutako gorabehera kopurua	Kopurua/urte
IKS	Ezarri eta egiaztatutako kudeaketa-sistemak (zehaztu)	BAI/EZ Zein/ urtea	Ekoscan/ URTEA eta/edo ISO14001/ URTEA eta/edo EMAS/ URTEA	BAI/EZ Zein/ urtea

C.4.– Zarataren kontrola.

Jarduera garatzen den lur zatiko kanpoko baldintza akustikoak hiru urtean behin kontrolatuko dira, batez ere zarata etxe barruetara sartzeko arriskurik handiena dagoen aldeetan. Izandako emaitzen arabera, aurrerantzean neurketak urtero egin ala ez erabakiko da.

Enpresaren inguruan zarata-mailaren ebaluazioa aurkeztutako txostenaren metodologiaren arabera egingo da, honako hauek kontuan hartuz:

- Jardueraren foku nagusien soinu-isurketaren zehaztapena.
- Instalazioaren eta inguruaren modelizazioa.
- Eragindako eraikinen ebaluazio-puntu adierazgarriak aukeratzea.
- Immisio-mailak aurreikuspenerako kalkulu ezagunaren metodoa erabiliz lortzea.

Foku garrantzitsu berriei loturik zarataren eragin kaltegarriak murrizteko neurri gisa honako hauek hartuko dira: jardueran zarata-foku berriak txertatzea ekiditea; hala badagokio, edozein instalazio berriren eragin akustikoa balioetsi proiektu-fasean; neurri zuzentzaileak definitzea zehaztapen akustikoen arabera eta horien eraginkortasuna egiaztatu instalatzen denean.

Sustatzaileak neurketen proposamen zehatz bat landu beharko du eta neurketa-metodo zehatzak adierazi bertan. Proposamen hori ebazpen honetako C.6 atalean aipatzen den ingurumena zaintzeko programaren testu bateginarekin batera aurkeztuko da.

C.5.– Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea.

Ingurumena zaintzeko programa osatzen duten analisi eta txostenen emaitzak behar bezala erregistratuko dira, eta Ingurumen Sailburuordetzara bidaliko dira. Ingurumena zaintzeko programaren emaitzak urtean behin bidaliko dira, beti martxoaren 30 baino lehen, ingurumenean aditua den erakunde aske batek egindako txostenarekin batera. Txosten horretan adieraziko dira neurri zuzentzaileen funtzionamendua, eta prozesuak eta ingurunearen kalitatea kontrolatzeko

sistemak. Emaitzen analisia ere adieraziko da, eta bereziki aipatuko dira aldi horretan gertatu diren gorabehera garrantzitsuenak, horien ustezko arrazoiak eta konponbideak, eta baita laginketen xehetasunak ere, aurretik zehaztu ez baldin badira.

C.6.– Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina.

Sustatzaileak ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina landu beharko du, aurkeztu dituen agirietan eta ebazpen honetan proposatutako betebeharrak bilduz. Programa horrek hauek zehaztu beharko ditu: kontrolatu beharreko parametroak, parametro bakoitzerako erreferentzia-mailak, analisi edo neurketen maiztasuna, laginketak eta analisiak egiteko teknikak, eta laginak hartzeko guneen kokapen xehatua. Halaber, dagokion aurrekontua ere barne hartu beharko du.

Era berean, ingurumena zaintzeko programak jardueraren adierazleak zehaztu eta adierazle horiek aztertzeko sistematika barruan izan beharko du, horien arabera enpresan bertan ingurumen-hobekuntza ziurtatzearren ezarritako neurri eta mekanismoen eraginkortasuna egiaztatu ahal izateko (ingurumen-adierazleak).

D) Ezohiko egoeretan kutsadurari aurrea hartzeko neurriak eta jardunerako baldintzak.

D.1.– Fabrika gelditzeko eta abiarazteko eragiketak eta mantentze-lanetarako programatutako eragiketak.

Programatutako urteko mantentze-lanei dagokienez, isurien eta sortuko diren hondakinen balioespena egin beharko du enpresak, eta dagokionean, horiek kudeatzeko eta tratatzeko proposamena ere bai.

D.2.– Jarduera uztea.

Jarduera lege hauen aplikazio-esparrukoa da: lurzorua ez kutsatzeko eta kutsatutakoa garbitzeko otsailaren 4ko 1/2005 Legea (2754 epigrafea «Beste burdinarik gabeko metalen galdaketa»), eta lurzoruan kutsadura sor dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen adierazpenerako irizpide zein estandarrak ezartzen dituen urtarrilaren 14ko 9/2005 Errege Dekretua. Hori dela-eta, Montorretas SA enpresak hasiera eman beharko dio lurzoruaren kalitatearen adierazpenerako prozedurari, gehienez ere bi hilabeteko epean, jarduera behin betiko uzten duenetik kontatzen hasita, otsailaren 4ko 1/2005 Legeak 17.4 artikuluan xedatutakoaren arabera.

D.3.– Ezohiko jardunean aplikatzeko prebentziozko neurriak eta jarduketak.

Aurkeztutako dokumentazioan egindako proposamenean ezohiko egoeretan aplikatu beharreko prebentziozko neurriak eta jardunerako baldintzak zehazten dira. Horiez gain, ondorengo ataletan aipatzen diren baldintzak bete behar dira:

a) Prebentziozko mantentze-lanen eskuliburua eduki beharko da instalazioen egoera ona bermatzeko, batez ere ustekabeko jario edo ihesak daudenean kutsadura ekiditeko eskuragarri dauden baliabideei eta ezarritako segurtasun-neurriei dagokienez. Ihesak daudenean lurzorua babesteko hartu beharreko neurriak zehaztuko dira, eta zehatz adieraziko da hauei dagokien guztia: eraikuntzako materialak (iragazgaiztea), biltegiratzeko neurri bereziak (gai arriskutsuak), egon daitezkeen ihesak antzemateko neurriak edo gainbetetzerako alarma-sistemak, lantegiko kolektore-sarea zaindu eta garbitzekoak (sistematikoki garbitzeko beharra, maiztasuna, garbiketa-mota), eta lurzoruaren gaineko isuriak biltzeko sistemak.

b) Aurreko paragrafoan adierazitako eskuliburuak ikuskaritza eta kontrolerako programa jaso beharko du, hauek bilduko dituena: estankotasun-probak, mailen eta adierazleen egoera, balbulak, presioa arintzeko sistema, hormen egoera eta lodieren neurketa, andelen barnealdearen

begi-bidezko ikuskaritzak (hormena eta estaldurena) eta kubetetako detekzio-sistemen aldizkako kontrol sistematikoa, lurzorua kutsa dezakeen edozein egoerari aurrea hartzeko.

c) Goian aipatutako prebentziozko mantentze-lanen eskuliburuan, atmosferaren kutsadurari aurrea hartzeko eta zuzentzeko (arazketa, minimizazioa, eta abar) sistemen egoera ona bermatuko duten neurriak gehitu behar dira.

d) Era berean, erregistro bat eduki behar da, eta bertan, aldizka egindako mantentze-lanen berri eman behar da, baita antzemandako gorabeherena ere.

e) Besteak beste, beruna, artsenikoa, sufrea, sodio hidroxidoa, olioak, erregaiak, eta orokorrean, fabrikan sortutako hondakinak maneiatzeak lurzorua eta ura kutsa dezake. Beraz, isuriak, jarioak edo ihesak gertatzeko arriskua izan dezaketen lur zatien azalera guztiak iragazgaiztuko dira.

f) Prozesurako behar diren lehengaiak, erregaiak eta produktuak ingurunean ez sakabanatzeko moduan biltegiratuko dira.

g) Hauts-produktuak gordetzeko, iragazkiak dituzten silo itxiak egongo dira.

h) Segurtasun-tarteei eta babes-neurriei dagokienez, egiaztatu egin beharko da biltegiratzeko instalazio horiek bete egiten dituztela produktu kimikoak biltegiratzeari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betebeharrak. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

i) Larrialdi-egoera sortzen denean, berehala eta eraginkortasunez jarduteko behar beste material eduki behar da: berriro ontziratzeko erreserbako edukiontziak, beharrezkoa izanez gero; gerta daitezkeen jarioei eusteko produktu xurgatzaile selektiboak, segurtasuneko edukiontziak, hesiak eta kaltetutako inguruneak isolatzeko seinaleztapen-elementuak eta babes pertsonalerako ekipamendu bereziak.

j) Hidrokarburoen bereizgailuak aldian-aldian ikuskatuko dira, hondakinak pilatu ez daitezen; dekantagailuetan eta bereizgailuetan metatutako lohiak eta flotatzaileak aldian-aldian kendu behar dira. Hondakin horiek baimendutako kudeatzaile bati emango zaizkio.

k) Bereizgailuan metatutako lohiak, olioak eta gantzak aldian-aldian kendu behar ditu baimendutako kudeatzaile batek. Isuriaren kantitateari eragiteko moduko mailetan metatzea saihestuko du.

l) Labearen xurgapen hezerako iragazpen-sistemaren dekantagailuan pilatutako hondakin solidoak eta lohiak aldizka atera beharko dira instalazioa behar bezala ibil dadin. Behar izanez gero, gordailu iragazgaitzetan eta hondoan hustubiderik ez dutenetan gordeko dira.

m) Inoiz ez dira pilatuko euri-uren jariatzearen ondorioz ibilgu publikoko ura kutsatzeko arriskua egon daitekeen guneetan.

n) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

o) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

p) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (beste hainbaten artean, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakinak, erregaiak edo substantzien isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

q) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.
- Iraupena.
- Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.
- Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.
- Eragindako kalteen balioespena.
- Hartutako neurri zuzentzaileak.
- Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.
- Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

r) Instalazioek suteen aurkako babesari buruz indarrean dagoen araudian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu beharko da. Egiaztapen hori egiteko, Ingurumen Sailburuordetza honi aurkeztuko zaizkio eskumena duten erakundeek emandako egiaztagiriak.

E) Baldin eta arautegi berria indarrean sartzeak, edo barneratzen diren sistemen egitura eta funtzionamenduari buruzko ezagutza berri esanguratsuetara egokitu beharrak hori egitea gomendatzen badute, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa aldarazi ahal izango dira, bai neurtu behar diren parametroen kasuan, bai neurketaren aldizkakotasuna eta aipatutako parametroek hartu behar duten tarteari dagozkion mugen kasuan. Era berean, neurri babesle zein zuzentzaileak eta ingurumena zaintzeko programa, jardueraren sustatzaileak hala eskatuta, edo ofizioz, aldaraz daitezke, ingurumena zaintzeko programan lortutako emaitzetan oinarrituta.

F) Urtean behin Montorretas SA enpresak Ingurumen Sailburuordetzari jakinaraziko dizkio atmosferara botatako kutsagarriei, uretara egindako isurketei eta sortu dituen hondakinei buruzko datuak, E-PRTR-Euskadi botatako eta eskualdatutako kutsagarrien Europako Inbentarioa landu eta eguneratzeko, E-E-PRTR Araudiko eta ingurumeneko baimen bateratuetako isurketen gaineko informazioa ematea arautzen duen apirilaren 20ko 508/2007 Errege Dekretuari jarraituz.

Informazio hori ekitaldi horren hurrengo martxoaren 31 baino lehen bidali beharko da. Informazioa Ingurumenari buruzko Adierazpenaren (IA) bidez gauzatuko da, hori baita kanpoko erakundeek eta Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak ingurumen-informazioa batak besteari elektronikoki emateko ardatza. Informazio-trukaketa horren funtsa Ingurumenari buruzko Adierazpenari (IA) dagozkion ingurumeneko datu teknikoak eta prozedurakoak sartzean datza, IKS-eeM Sistemako erakundeentzako bertsioaren bidez (www.eper-euskadi.net web orrian eskuragarri): Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Saileko Ingurumen-informazioa Kudeatzeko Sistema. Datu horiek guztiek Ingurumenean Eragina duten Jardueren Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa osatuko dute, Europako Ingurumen Agentziaren Erregistrora (Europako E-PRTR Erregistroa) egiten diren informazio-bidalketen oinarri dena.

Halaber, ebazpen honetan aurreikusitako gainerako informazio-trukeak aipatutako Ingurumenari buruzko Adierazpenaren bidez gauzatuko dira, ahal izanez gero.

Informazio hori agerikoa izango da, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen xedapenekin bat etorriz. Lege horren bidez informazioa eskuragarri izateko, herritarren partaidetzarako eta ingurumen-gaietan justizia eskura izateko eskubideak arautzen dira (2003/4/EE eta 2003/2005/EE Zuzentarauak jasotzen ditu). Horrez gain, uneoro bermatu beharko da datu pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betetzen dela.

G) 2007ko apirilaren 21eko 509/2007 Errege Dekretuaren 4. artikuluko 3. atalari jarraituz, instalazioaren titularrek agintaritzari jakinarazi beharko diote instalazio horietan erabiltzen eta ekoizten diren substantziek, 1907/2006 EE Erregelamenduan erregistratu eta ebaluatzeko aurreikusitako prozesuan identifikatu direnak, giza osasunerako eta ingurumenerako izan dezaketen arriskua.

H) Ingurumeneko baimen bateratu honen mendeko instalazioan egindako aldaketek bat etorri beharko dute kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legeak 10.3 artikuluan ezarritako komunikazio-erregimenarekin. Hori horrela, ingurumeneko beste baimen bateratu bat beharko da aldaketak funtsezkoak direnean.

Hirugarrena.– Ebazpen hau eraginkorra izan dadin, aurretik Ingurumen Sailburuordetzari agiri bidez egiaztatu beharko zaio ebazpen honetako bigarren ataleko puntu hauetan ezarritako baldintzak betetzen direla: B.1.2 (Isurtze barreiatuak biltzeko, husteko eta, hala badagokio, arazteko proposamen zehatza. Arragoadun labearen bilketa hobetzeko eta handitzeko proposamena). B.2.1 (Isurketa-puntu bakoitzaren UTM koordenatuak); B.2.3 (Erakunde baimenduak eginiko isurketen azterketa osoa); B.2.4 (Arazketa-instalazioen egokitzapena eta baimendutako mugen kontrola); B.3.1 f) eta B.3.2 d) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen onarpen-agiriak); B.3.1 o) eta B.3.2 f) (Hondakin arriskutsu eta ez-arriskutsuen erregistro-ereduak); B.3.2 a) (Baliotu daitezkeen hondakin ez-arriskutsuen segregazioa); B.4 (Lurzoruaren kalitatea babesteko neurri orokorrak); C.1 (Atmosferara egindako isurketen neurketak, KEB-aren Txostenak; isurketa atmosferikoen erregistro-eredua); C.6 (Ingurumena zaintzeko programaren agiri bategina); D.1 (geldialdi programatuetan sortutako isurtze eta hondakinen zenbatespena); D.3 a) (Mantentze-lanen eskuliburua); D.3 h) (Biltegiratze-ziurtagirien egiaztapena APQarekin bat etorriz); D.3 i) (Larrialdietarako materialen eta babes pertsonalerako ekipoen zerrenda); D.3 r) (Suteen kontrako araudia betetzearen ziurtagiria).

Halaber, baimen hau indarrean jarri aurretik, ingurumen organo honi atxikitako zerbitzu teknikoen ikuskaritza-bisitan egiaztatu beharko da instalazioak aurkeztutako proiektuaren arabera eta Ebazpen honetan ezarritakoarekin bat etorrita eraiki eta hornitu direla. Horretarako, aipatutako ikuskapen-bisitaren aurretik, sustatzaileak Ingurumen Sailburuordetza honetan aurkeztu beharko du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen agiria, teknikari aditu batek eginda.

Goiko baldintza horiek guztiak betetzeko 6 hilabeteko epea ezarri da, ingurumeneko baimen bateratua eraginkorra dela adierazteko Ingurumen Sailburuordetzak emandako ebazpen hau jakinarazten den biharamunetik kontatzen hasita.

Adierazitako baldintzak betetzen direla ziurtatzean, ebazpena emango da eta, horren bitartez, ingurumeneko baimen bateratua eraginkortzat aitortuko da.

Laugarrena.– Ingurumeneko baimen bateratu hau 8 urteko epean egongo da indarrean, aurreko atalean ezarritakoaren arabera ondorioak dauzkan egunetik kontatzen hasita. Epe hori igarota, baimena berritu egin beharko da eta, hala badagokio, jarraian datozen aldietarako eguneratu.

Ingurumeneko baimen bateratua amaitu baino hamar hilabete lehenago, titularrak baimena berritzeko eskaera egin beharko du, uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 25. artikuluan xedatutakoa betez.

Bosgarrena.– Edonola ere, ingurumeneko baimen bateratua ofizioz aldatu ahal izango da uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 26. artikuluan ezarritako kasuak aintzat hartuta.

Seigarrena.– Montorretas SA enpresak ebazpen honen xede den berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko jardueran titulartasun-aldaketarik eginez gero, aldaketa hori jakinarazi beharko du, Ingurumen Sailburuordetzak onar dezan.

Zazpigarrena.– Baimen honek balioa galduko du kausa hauek gertatzen direnean:

● Epearen barruan ez egiaztatzea ebazpen honetako Hirugarren atalean ingurumeneko baimen bateratuak ondorioak izan ditzan ezarritako baldintzak betetzen direla, interesdunak behar bezala justifikatuz epea luzatzeko eskatzen ez badu.

● Montorretas SA enpresaren nortasun juridikoa bukatzea, indarrean dagoen araudian ezarritako kasuetan.

● Baimena indarrean jartzen dela adierazten duen ebazpenean xedatutakoak.

Zortzigarrena.– Ebazpen honen edukia jakinaraztea Montorretas SA enpresari, Durangoko Udalari, ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduran parte hartu duten erakundeei, eta gainerako interesdunei.

Bederatzigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agintzea.

Hamargarrena.– Ebazpen honek ez du agortzen administrazio-bidea; horrenbestez, interesdunek gora jotzeko errekurtsoa aurkez daiteke Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuaren aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunean kontatzen hasita, hori guztia Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 114. artikuluarekin eta ondorengoekin bat etorriz (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen lege hori).

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 23a.

Ingurumeneko sailburuordea,
IBON GALARRAGA GALLASTEGUI.

ERANSKINA: ALEGAZIOEI BURUZKO TXOSTENA

Montorretas SA enpresak Durangoko (Bizkaia) udalerrian sustatutako berunezko perdigoiak diseinatu eta fabrikatzeko jarduerari ingurumeneko baimen bateratua emateko prozeduraren barruan ingurumen-organoak sustatutako jendaurrean jartzeko izapidean, 3 alegazio-idazki aurkeztu dira.

Ondorengo ataletan egindako analisian agerian jarriko denez, Ingurumen Sailburuordetza honek erreferentziako instalazioaren ingurumeneko baimen bateratua ematerakoan, aurkeztutako alegazioetan proposatutako ingurumen-alderdi guztiak hartu dira kontuan. Horrela, proiektuan jasotako eta ingurumeneko baimen bateratuko prozedura honen bidez osatutako neurri zuzentzaileak, instalazioak sor litzakeen ingurumenaren gaineko balizko eraginak minimizatzera bideratuta daude.

Dena dela, agertutakoek planteatutako hainbat alderdiri erantzun zehatzago bat emateko xedearekin, Ingurumen-organo honek honako txostena osatu du, ondoren azalduko diren ataletan alegazioen edukiak sailkatuz.

1.– Hirigintza-bateraezintasuna.

Alegazioak:

Hainbat alegazio-jartzailek diote enpresaren jarduera kokapen horretan ez datorrela Durangoko Udalaren udal-plangintzarekin bat, plangintzatik kanpo baitago hirugarren sektorean kokatzen baita (TS-3/03 Montorretas-1).

Gogoetak:

Montorretas SA enpresak sustatutako ingurumeneko baimen bateratua emateko administrazio-jardunbidearen markoan, Durangoko Udalak, 2006ko abuztuaren 4an, proiektuaren eta Durangoko hirigintza-plangintzaren arteko bateragarritasunari buruzko txostena igorri zuela jaso da.

Bertan, industria «ordenantzatik kanpoko» lekuan dagoela adierazten da, eta beraz, «indarrean dauden AASSen 1.3.37 artikulua aplikatu behar da. Artikuluak dio ordenantzatik kanpo kalifikatutako eraikinetan, dauden erabilerak mantentzea onartuko da jarduera amaitu arte».

2.– Teknika Erabilgarri Onenak.

Alegazioak:

Alegazioaren arabera, aurkeztutako agirietan ez da argi geratzen zein BREF txostenen araberakoa izan behar duen instalazioak, eta TEO zehatzen ordez, enpresak adierazten dituenak ingurumeneko zenbait jardunbide egoki direla.

BREF txostenetan ezarritako neurri zuzentzaile zehatzak hartzea eskatzen da, zehaztutako TEOen bestelakoak aztertuz.

Gogoetak:

Baimen honen oinarrizko xedea, 16/2002 Legearen 11. artikuluan xedatutakoari jarraiki, aplikazio-eremuan jasotzen diren instalazio guztiek araua betetzen dutela bermatuko duten baldintza guztiak jartzea da.

Hala, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22. artikuluak ingurumeneko baimen bateratuak, gutxienez, Teknika Erabilgarri

Onenetan oinarritutako isurketa muga-balioak jaso beharko dituela dio, 7. artikuluarekin bat eginez, instalazioak isuri ditzakeen gai kutsagarrientzat eta, hala badagokio, horiek jasoko dituzten parametro edo neurri tekniko baliokideak.

Zentzu horretan, instalazioak isur ditzakeen gai kutsagarrien muga-balioak eta ingurumena, oro har, ahalik eta gehien babesteko ustiapenerako ezarriko zaizkion beste baldintza batzuk zehazte aldera, Ebazpen hau egiterakoan kontuan izan dira teknika erabilgarri egokienen erabilera eta aplika dakiokeen alorreko legerian ezarritako neurriak eta baldintzak.

Zehazki, Europako Batzordearen 2005eko maiatzeko Galdaketaren inguruko BREF txostenaren «Referente Document on Best Available Techniques in the Smitheries and Foundries Industry», 2001eko abenduko Burdinarik gabeko metalurgiari buruzko BREF txostenaren «Reference Document on Best Available Techniques on de Non Ferrous Metal Industries» eta 2005eko urtarrileko Biltegiratze-igorpenen inguruko BREF txostenaren «Reference Document on Best Available Techiniques on Emissions from Storage» edukiak hartu dira kontuan.

Hala, dagokion ingurumeneko baimen bateratua lortzeko aurkeztutako proiektua aztertu ondoren, instalazioak Teknika Erabilgarri Onenak gisa har daitezkeen honako neurriak dituela jakin da:

● Hormigoizko zola eta estalkia biltegietan; ekortzeko makina zoruko hautsa ezabatzeko. Perimetro-itxitura haizearen kontra egotea murrizteko, garraio-distantzien murrizketarako erabileratik gertu biltegiratzea.

● Artsenikoaren bidoiak trinkotzea HAen kudeatzaileari eman aurretik beren bolumena murrizteko.

● 200 L-ko xaboiaren bidoien ordez, 800 L-ko itzultzeko edukiontziak erabiltzea.

● Arragoadun labetik kendutako berunezko oreen bidoi hermetikoetan biltegiratzea.

● Berunezko fusioan oxigenoa ematea eta potasio nitratoa ezabatzea (eta sodio hidroxidoa eta sufrea gutxitzea).

● Erreusekoak eta konforme ez dauden produktuak fusioan berrerabiltzea.

● Berriz erabil daitezkeen edukiontzietan poteratzea.

● Hezean iragaztea urtzeko labean eta mahuka-iragazkia grafitoa aplikatzean.

● Galdatzeko dorrearen erorketaren diametroa gehitzea, labearen gas-kontsumo berarako ekoizpen-ahalmena handituz.

3.– Atmosfera-kutsadura.

Alegazioak:

Hainbat alegazio-jartzailek dioenez, kontuan hartu beharreko parametro desberdinen isurketen egungo mailak ez dira KEB bidez egiaztatzen, eta beraz, ez dela Teknika Erabilgarri Onenei loturiko Isurketa Muga Balioak betetzen direnaren bermerik.

Halaber, araztu gabeko isurketak daudela adierazi da, zehazki, berunezko urtzeko labeari eta galdatzeko dorreari dagozkien fokuetan sortutakoak.

Beste alegazio batek, artsenikoaren isurketak azpimarratzen ditu, horren immisio-mailak oso altuak izan baitira udalerrian, eta parametro horren kontrola enpresak ez duela Ingurumena Zaintzeko Programaren proposamenean txertatu dio.

Halaber, beste alegazio-jartzaile batek adierazi du tximinia batzuen goiko kota ondoko eraikin baten bulegoen solairuaren altuera berean dagoela.

Gogoetak:

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11. artikuluak ingurumeneko baimen bateraturen xedea honakoa dela xedatzen du:

a) Baldintza guztiak ezartzea, araua, berau aplika daitekeen instalazio guztietan betetzen dela bermatzeko; horretarako, baimena emateko parte hartuko duten Herri Administrazio desberdinen artean koordinatuta izango den prozedura bat erabili nahi da, izapideak erraztu eta partikularrek ordaindu beharreko kargak gutxitzearren.

b) Kutsaduraren prebentzio- eta kontrol-sistema izatea, hondakinen ekoizpen eta kudeaketaren arloan dauden ingurumeneko baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bilduko dituena, udal-hondakinen eta hondakin arriskutsuen errausketa barne eta, hala badagokio, hondakinen isurketa, ur kontinentaletara isurtzea, saneamendu-sistema osora eginiko isurketak barne, eta lurretik itsasora eginiko isurketak, bai eta kutsadura atmosferikoaren alorrean ingurumen izaerako zehaztapenak ere, konposatu organiko hegazkorrei dagozkienak barne.

Ingurumeneko baimen bateratu honetan barne hartuta daude, besteak beste, Montorretas SA enpresak airearen kalitatea babesteko esparruan bete behar dituen baldintzak eta betekizunak.

Hala, «B.1. Airearen kalitatea babesteko baldintzak» atalean adierazten da instalazioa ustiatzean atmosferara egingo diren isurtzeek ez dituztela Ebazpen honetan ezarritako isurtzeko muga-balioak gainditukо.

B.1.2 puntuan instalazioan dauden fokuak identifikatu eta katalogatzen dira, eta hondakin-gasen ebakuaziorako tximiniek izan behar duten gutxieneko altuera adierazten da.

B.1.3 puntuan foku bakoitzean kontuan hartutako parametroetarako errespetatu behar diren muga-balioak ezartzen dira, indarrean dagoen araudia kontuan hartuz. Parametro horien artean, berariaz mugatzen dira jarduerari loturiko metal astunen isurketak, hala nola, beruna, antimonio eta artsenikoarenak.

Halaber, ingurumeneko baimen bateratuaren eraginkortasunerako, enpresak arragoadun labearen prozesuen bilketa handitu eta hobetzeko proposamena egin behar du, bai eta lau Collin makinen eta galdatzeko dorrearen isurketak biltzeko, husteko eta, hala badagokio, arazteko proposamena ere, eta ingurumen organoak onartu behar ditu.

Foku horiek Ebazpen honetako C.1 puntuan adierazitako kontrolen mende daude. Kontrol hori, nazioarteko neurketa-arau desberdinak jarraituta kontrol erakunde baimenduak egingo dituzte eta, izatekotan, Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak egindako «BKEen gutxieneko txostenean» jasotako gutxieneko edukia jarraitu behar du.

4.– Zaratak.

Alegazioak:

Adierazten denez, instalazioaren zarata-mailak inguruko etxebizitzetan izan dezakeen eragina ez dago ongi dokumentatua, gertuen dauden etxebizitzak 300 m ingurura daudela adierazten

baita. Egiaz, etxebizitza bat eta hirugarren sektoreko enpresen hainbat pabiloi daude jardueraren aldamenean.

Beste alegazio batean azpimarratzen denez, Durangoko Plangintza Arau Subsidiarioen Testu Araugilean, 2. kategoriako Industriak bete beharreko gehienezko balioak honakoak dira: egunez eta gauez gehienezko kanpo-zarataren maila 50 dBA, eta 80 dBA barneko gehienezko zarata-maila.

Gogoetak:

Zaratari dagokionez, «B.1.5 Zaratari buruzko baldintzak» atalean eskatzen zaio enpresari ezarritako neurriak errespetatzeko neurriak aplikatzeko.

Gainera, «C.4 Zarataren kontrola» atalean, ingurune-alde horri aplika beharreko kontrola ezartzen da eta sustatzaileari neurketa-proposamen zehatza egitea eskatzen zaio (Ingurumena Zaintzeko Programan jaso beharrekoa).

Halaber, zonabanatze akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez zaratari buruzko azaroaren 17ko 37/2003 Legea garatzen duen urriaren 19ko 1367/2007 Errege Dekretuaren 5. artikuluak honakoa xedatzen du:

«1. Azaroaren 17ko 37/2003 Legearen 7.2 artikuluaren garapenerako, lurralde antolamenduan eta hirigintza-plangintzarako tresnetan, maila orokorrean zein garapenekoan, lurraldearen zonabanatze akustikoa eremu akustikoetan jasoko da aipatu Legean aurreikusitakoaren arabera.

Eremu akustikoak, lurzoruaren lehentasunezko erabileraren arabera sailkatuko dira autonomia erkidegoek zehaztuko dituzten motetan. Horien artean, gutxienez, honako hauek aurreikusi beharko dira:

a) Gehienbat bizitegi-erabilera duten lurraldeko sektoreak.

b) Gehienbat industria-erabilera duten lurraldeko sektoreak.

c) Gehienbat jolas eta ikuskizunerako erabilera duten lurraldeko sektoreak.

d) Gehienbat aurreko paragrafoan jasotakoa ez den hirugarren sektoreko erabilera duten lurraldeko sektoreak.

e) Gehienbat osasun, irakaskuntza eta kulturarako erabilera duten eta kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duten lurraldeko sektoreak.

f) Garraio-azpiegituren sistema orokorrek edo horiek behar dituzten ekipamendu publikoek eragindako lurraldeko sektoreak.

g) Kutsadura akustikoaren aurkako babes berezia behar duten natura-guneak.

Lurralde baten zonabanatzea eremu akustikoetan egiterakoan, kontuan hartu beharko da azaroaren 17ko 37/2003 Legearen eta errege dekretu honen aurreikuspenekin bat egiten duten jatorri naturaleko zor eta erreserba akustikoko eremuak daudela.

Eremu akustikoen lurralde-mugapena eta horien sailkapena lurzoruaren egungo edo aurreikusitako erabileretan oinarrituko dira. Beraz, udalerri baten zonabanatze akustikoak, f) eta g) motatako eremu akustikoei dagokienean izan ezik, eremu urbanizatuei eta hirigintza-garapen berriei eragingo die.

2.– Lurraldearen sektore bat eremu akustiko mota jakin baten gisa ezarri eta mugatzeko, V. eranskinean deskribatzen diren irizpide eta artezpideak hartuko dira kontutan.

3.– Lurraldearen puntu bakar batek ere ezingo du aldi berean bi eremu akustiko mota desberdinetakoa izan.

4.– Lurraldea eremu akustikotan zonabanatzeak, kalitate akustikoari dagokionez, eremu akustiko desberdinen eta horien eta jatorri naturaleko soinudun zor eta erreserba akustikoko eremuen artean bateragarritasuna mantenduko du eta, hala badagokio, bateragarritasun hori lortzeko beharrezko neurriak hartuko dira.

Eremu akustiko jakin baterako lurzoruaren bi erabilera edo gehiago ematen badira edo onar badaitezke, gehienbat ematen den erabileraren arabera sailkatuko da, V. eranskineko 1. atalean ezarritako irizpideak aplikatzearen ondorioz zehaztuz.

Eremu akustiko baten hedadura geografikoaren mugapena, gutxienez 1/5.000 eskalako eremuko planoan adierazitako muga geografikoek edo bertize guztien koordenatu geografikoek edo UTMek definituko dute grafikoki eta trukerako balio duen formatu geokodifikatuan egingo da.

5.– Udalerri batean zonabanatze akustikoa ezarri arte, eremuaren erabilera esanguratsuak mugatuko ditu eremu akustikoak.»

Oraingoz eremu akustikorik mugatu ez denez, eta aipatu mugapenak eremuaren erabilera esanguratsuari ez ezik, aldameneko erabilerekin bateragarri egingo duten balizko zor akustikoak ere hartu behar direnez kontutan, ingurumen organoak, zuhurtasun-printzipioa aplikatuz, industria-jarduerei jardueren baimenen markoan aplikatu izan den zarataren muga-balioak ezarri ditu neurri zuzentzaileak ezartzen dituzten txostenak igorriz, eta hori guztia, aipatu eremu akustikoak mugatzerakoan etorkizunean aipatu balioak aldatu beharraren aurka egin gabe, Ebazpenaren E atalean jasotzen denari jarraiki.

Azkenik, adierazi behar da Udalak, bere eskumenen artean, ingurumen organoak ezartzen dituen muga-balioak baino zorrotzagoak ezarri ditzakeela, baina inoiz ez bigunagoak.

5.– Hondakinak.

Alegazioak:

Enpresak gai arriskutsuak erabiltzen baditu ere, enpresak hondakin arriskutsuen ekoizle izateko baimenik ez duela adierazten da.

Gogoetak:

Lehen aipatutako Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 11. artikuluak honakoa xedatzen du: Kutsaduraren prebentzio– eta kontrol-sistema izatea, hondakinen ekoizpen eta kudeaketaren arloan dauden ingurumeneko baimen guztiak egintza administratibo bakar batean bilduko dituena, udal-hondakinen eta hondakin arriskutsuen errausketa barne eta, hala badagokio, hondakinen isurketa, ur kontinentaletara isurtzea, saneamendu-sistema osora eginiko isurketak barne, eta lurretik itsasora eginiko isurketak, bai eta kutsadura atmosferikoaren alorrean ingurumen izaerako zehaztapenak ere, konposatu organiko hegazkorrei dagozkienak barne.

Ingurumeneko baimen bateratuaren B.1.3 atalean sustatzaileak hondakinak sortzeko gaian bete behar dituen baldintzak jasotzen dira.

6.– Ingurumena Zaintzeko Programa.

Alegazioak:

Proposatutako Ingurumena Zaintzeko Programa osatu gabea dela adierazten da, TEOetan ezarritako Isurketa Muga Balioetara ez dela moldatzen, eta gaur egun egiten ari denaren egiaztapenik ez dagoela. Halaber, berariaz «artsenikoa» parametroaren kontrola isurketan jaso dadila eskatzen da.

Proiektuan larrialdietarako plana jaso beharko litzateke. Plan horretan ingurumen-arloan eskudun diren erakundeei jakinarazteko sistema jaso beharko luke.

Gogoetak:

Ebazpen honen «C.6 Ingurumena zaintzeko programari buruzko agiri bategina» atalean, sustatzaileari Ingurumena Zaintzeko Programaren agiri bategina egiteko eskatzen zaio. Agiri horrek, aurkeztutako agirietan jasotako proposamenak eta ebazpen honetan ezarritako betebeharrak jasoko ditu.

Gainera, «C.5 Emaitzak kontrolatu eta bidaltzea» atalean adierazten denez, aipatu programa osatzen duten azterketa eta txosten desberdinen emaitzak Ingurumen Sailburuordetzara igorriko dira urtero. Horiekin batera, erakunde independente eta ingurumenean espezialista den batek eginiko txostena aurkeztuko da.

Beruna urtzeko arragoadun labearen 1. fokuan eta galdatzeko dorrearen 3. fokuan artsenikoa isurtzearen kontrola, ingurumeneko baimen bateratu honetan jasoa geratzen da, «C.1 Atmosferara egindako isurtzeen kontrola» puntuan, B.1.3 puntuan adierazitako mugekin.

Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 22. artikuluan xedatutakoari jarraituz, ingurumeneko baimen bateratuan honako alderdi hauek barne hartuko dira, besteak beste: ezohiko egoeretan, ingurumena eragin dezaketen egoeretan, ustiapena egiteko baldintzei dagozkien neurriak, adibidez instalazioa martxan jartzean, ihesak gertatzean, funtzionamendu-akatsak badaude, aldi baterako gelditzean edo behin betirako ixtean. Zentzu horretan, D atalean, hainbat baldintzen artean, honako hauek jasotzen dira:

s) Larrialdi-egoeretan, babes zibileko legeriari helduko zaio, eta bertan ezarritako betekizun guzti-guztiak bete beharko dira.

t) Titularrak behar diren bitartekoak izango ditu arazketa-instalazioak zuzen ustiatzeko eta ustekabeko isurketak prebenitzeko hartu diren segurtasun-neurriak abian izateko.

u) Ingurunearen edo jardueraren kontrolaren gainean kalteak eragin ditzakeen gorabehera edo ez-ohiko gertaeraren baten aurrean (beste hainbaten artean, ihesak, jarioak, lurzorua edo urak kutsa ditzaketen hondakinak, erregaiak edo substantzien isurketa garrantzitsuak; suteak), gorabehera edo ez-ohiko gertaera horren berri eman beharko dio Ingurumen Sailburuordetzari.

v) Gertakari edo arazo larriren bat edo ustekabeko isuriren bat egonez gero, SOS Deiak eta Udalari jakinarazi beharko zaie berehala. Ondoren, eta gehienez ere 48 orduko epean, ezbeharrari buruzko txosten xehatua bidali beharko da Ingurumen Sailburuordetzara. Txosten horretan, gutxienez, honako datu hauek agertuko dira:

- Gertakari mota.
- Gertakaria non, zergatik eta zer ordutan gertatu den.

● Iraupena.

● Ustekabeko isuria bada, emaria eta isuritako gaiak.

● Mugak gaindituz gero, isuriei buruzko datuak.

● Eragindako kalteen balioespena.

● Hartutako neurri zuzentzaileak.

● Prebentziozko neurriak berriro gerta ez dadin.

● Prebentzio-neurriak eraginkortasunez aplikatzeko ezarritako epeak.

7.– Lanaren ingurumenari loturiko arriskuak.

Alegazioak:

Aurkeztutako agirietan lanaren ingurumenari loturiko arriskuak ez direla identifikatzen adierazten da, laneko ingurumenean gai kimikoek sor dezaketen arriskuei dagokienez, ez eta gai horiek ingurumenean egoteak langileen osasuna kaltetu dezaketela edota lan-arriskuen prebentziorako kudeaketa-sistemaren kontrol aktiboak eta erreaktiboak ere, energiaren arriskua zarata eta bibrazio gisa soilik identifikatzen da.

Gogoetak:

Uztailaren 1eko 16/2002 Legearen, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzkoaren xedea da atmosferaren, uraren eta lurzoruaren kutsadura saihestea edo, hori ezinezkoa denean, kutsadura hori gutxitu eta kontrolatzea; eta hori lortzeko, ingurumen osoaren babes-maila altua helburutzat harturik, kutsadura prebenitu eta kontrolatzeko sistema integratu bat ezartzea.

Laneko ingurumenak eragiten dituen arriskuak lan-arriskuen prebentzioari buruzko azaroaren 8ko 31/1995 Legeak arautzen ditu.

8.– Laburpen ez-teknikoa osatu gabea.

Alegazioak:

Laburpen ez-teknikoa osatu gabe dagoela adierazi da honako informazioa falta delako:

● Ez zaie erreferentziarik egiten isuritako kutsagarri motei, ezta aipatu kutsagarrien neurketa edota muga-balioei ere.

● Ez dira ezarritako edo aurreikusitako Teknika Erabilgarri Onenak aipatzen, ez eta aztertutako alternatibak ere.

● Ez dira isurketak prebenitzeko, gutxitzeko eta kontrolatzeko neurriak jasotzen.

● Ez zaie erreferentziarik egiten aurreikusitako ingurumen eraginei (jarduera gelditzean sor daitezkeenak barne).

Gogoetak:

Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearekin bat etorriz, laburpen ez-teknikoaren helburua proiektua ulertzen laguntzea dela adierazi behar da, jendaurrean jartzeko izapideari begira.

Montorreta SA enpresak aurkezturiko laburpen ez-teknikoaren kasuan, enpresaren egoera modu orokorrean deskribatzen da eta beraz, instalazio horietan garatzen den jardueraren ezaugarri garrantzitsuenak ezagutzeko aukera eskaintzen du.